

Abarak

JON TORNER

Vargas poliziakoa zuri-beltzean

Los cuatro ríos. Fred Vargas - Edmond Baudoin.
Astiberri (2009).
225 orrialde, zuri-beltzean. 18 euro.

ISTORIOA EZ DA IRAULTZAILEA. Bi mutiko gaztek maletatxoak lapurtuko diote gizonkote bati. Diru mordoa dago barruan, baita nortasun agiri faltuak eta objektu arraro ugari ere. Magia beltza, sorginkeria... zorroan aurkitutakoak gazteak belurtu ditu. Badute arrazoirik horretarako, gizonkoteari bor-bor egiten dio odolak, eta mendekua bilatuko du. Gidoia, baina, espresuki komiki-liburu honetarako sortua, Fred Vargas idazlearena da, eta marrazkiak Edmond Baudoin ilustratzailearenak. Frantziarrak biak, euren arteko elkarlanak ezin zuen fruitu txarrik eman.

Nobela beltzaren eta komikiaren artean koka dezakegun liburu gomendagarri honetako protagonistetako bat Adamsberg da, Vargasen irakurleek aski ongi ezagutzen duten polizia inspektorea. Berak darama kasuaren gidaritza, Baudoinen



zirriborro eta trazo lodiek harrapatuta. Ilustrazioak guztiz bukatu gabe daude, baina nabari da *Piero*, *Le Voyage* eta *Couma acò* obren egileak nahita bilaturiko zerbait dela, Parisko paisaiari eta pertsonaiei ukitu berezia eman nahi izan diela, narrazioaren tonalidade ilunarekin bat egiteko. Liburuan apenas dago testu deskriptiborik. Narratzailea ezkutuan dago, eta elkarrizketek eusten diote istorioaren pisuari. Hizkera kolokiala darabilte pertsonaiek, ironikoa zenbaitetan, jostalaria, irakurlea konplize bihurtu arteraino. Tira, guztiek ez dute halakorik lortzen.



BIHARKO JAKINTZAGAU ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA KALEAN!

- ▶ Zientziaren eta teknologiaren arlo guztietako informazioa biltzen duen lehen hiztegi entziklopedikoa
- ▶ 200 aditu baino gehiagoren artean egina
- ▶ Ingelesa-euskara, gaztelania-euskara eta frantsesa-euskara terminoen zerrendak
- ▶ Artikulu entziklopedikoak eta irudiak

% 5eko
deskontua
www.elhuyar.org
/edizioak
helbidean

ELHUYAR
Fundazioa

Universidad
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

